# Gesto por la paz

Acto público. *Es nuestro derecho, paz y libertad. ETA ez*

Cinco minutos de silencio en los que hemos señalado a ETA como la responsable del drama más desgarrador que asiste a nuestra sociedad.

A veces parece que no está claro cuál es el camino, dónde está el auténtico problema que nos impide vivir en paz. Es como si una densa niebla de confusión nos inundara la vista. Pero no es así. No estamos ciegos y por eso gritamos en silencio ETA ez y lo gritamos porque queremos que toda esta historia de violencia e injusticia se acabe definitivamente.

No hay un solo motivo para matar, ni para perseguir, ni para extorsionar. Ni uno. Que no nos vengan con condiciones, la paz es nuestro derecho. Y quienes aún respaldan la violencia que abandonen con decisión el apoyo a la violencia callejera, la pintada amenazante, el chantaje, la tutela violenta y opten decididamente por el uso de la palabra. Si quieren jugar en el tablero democrático, tienen que respetar sus reglas, como lo hace la gran mayoría de la sociedad vasca.

Nuestros representantes, los responsables políticos, elegidos por todas y todos nosotros, son quienes han de liderar y marcar con nitidez las iniciativas para deslegitimar la violencia y para derrotar el terror al que ETA nos quiere someter. Nos resulta imprescindible sentirles, verles, oirles unidos, en una responsable armonía, sin grietas por las que se pretenda colar el totalitarismo, siempre al acecho. No entendemos que se haga un uso particular, interesado ni partidista de esta lucha contra ETA.

La esperanza nos la aplastaron con los escombros de Barajas, con los comunicados amenazantes, con cada comando preparado para asesinar. ETA es la máxima responsable y quienes son incapaces de alzar la voz contra esas muertes injustas, también tienen su cota de responsabilidad. Nosotros no desistimos; de hecho, insistimos en que no hay razones, no hay motivos, no hay palabras que sustenten, que justifiquen o que hagan entender ni una sola muerte, ni la permanente amenaza de ETA. Por ello, reclamamos lo que es nuestro derecho, paz y libertad.

5 de mayo de 2007

Bizkaia: Apdo. Correos 10152  48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285
Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838
Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000
Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135
gesto@gesto.org www.gesto.org

# Gesto por la paz

## *Gure eskubidea da: bakea eta askatasuna. ETA ez*

Bost minutu isilpean eman berri ditugu ETAri adierazteko bera dela gure gizartea paratzen ari den egoera lazgarrienaren erantzulea.

Badirudi batzuetan ez dagoela argi zein den bidea, non dagoen benetako arazoa bakean bizitzen uzten ez diguna. Halako lanbro trinko batek ikusmena lausotu digula ematen du. Baina ez da horrela. Ez gaude itsu eta isilik oihu egiten dugu ETA ez. Indarkeria eta bidegabekeriaz beteriko urte hauek guztiak amaitzea nahi dugulako esaten dugu ozen.

Ez dago inolako arrazoirik ez erailtzeko, ez jazartzeko, ez estortsiorik egiteko. Bat bera ere ez. Ez dezatela inongo baldintzarik jarri, bakea geure eskubidea baita. Bortizkeriaren alde nola edo hala daudenek utz diezaiotela kale-indarkeria, mehatxuzko pintada eta xantaia babesteari, eta har dezatela benetan hitzaren bide bakarra. Esparru demokratikoan arituko badira, arauak errespetatu beharko dituzte, gainerako guztiok egiten dugun bezala.

Gure ordezkariok, guk aukeratutako ardura politikoak dituzten horiek, ETAk ezarri nahi duen beldur hori deslegitimatzeko bidea urratzen lehenengoak izan behar dira. Erabat beharrezko dugu haiek baturik ikustea, entzutea, zulorik gabeko bide horretan kide izanda, bestela totalitarismoak urratsak ematen baititu. Ez dugu ulertzen ETAren kontrako burruka honetan alderdikeriaren edo erabilkeriaren bidea jorratzea.

Itxaropena Barajasko hondarretan, mehatxuzko komunikatuetan, erailtzeko prest dagoen komando bakoitzean akabaturik utzi ziguten. ETA bera da erantzulerik handiena. Hilketa horien aurka egiteko gauza ez diren horiek ere badute erantzukizunik. Guk, hala ere, ez dugu etsiko. Izan ere, berretsi nahi dugu ez dagoela arrazoirik, ezta hitzik ere, hilketa edota mehatxua zuritu dezakeenik. Honexegatik aldarrikatzen dugu gure eskubide hau: bakea eta askatasuna.

Bizkaia: Apdo. Correos 10152  48080 BILBAO. Tfno. 94 4163929 Fax 94 4153285
Alava: Apdo. Correos 2063 01080 VITORIA GASTEIZ Tfno. y Fax 945 226838
Gipuzkoa: Apdo. Correos 5005 20080 DONOSTIA Tfno. y Fax 943 290000
Navarra: Apdo. Correos 176 31080 PAMPLONA Tfno. y Fax 948223135
gesto@gesto.org www.gesto.org